irun
Aprobado por la Alcaldía
Presidencia por resolución Nº 1251
de Fecha 7/10/2022
Irun, 7/10/2022
Idazkaritza / La Secretaria

AHOZKO ETA IDATZIZKO ITZULPEN ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA

-BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA-

IRUNGO UDALA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

ARLO SUSTATZAILEA: EUSKARA ARLOA
ESPEDIENTE KODEA: 2022ZAUN0019

1.- Xedea:

Kontratu honen xedea da Irungo Udalak eskatzen dituen idatzizko eta ahozko itzulpen lanak egitea, bai gazteleratik euskarara eta bai euskaratik gaztelerara, pleguetan ezartzen diren baldintzak kontuan hartuz.

2.- Itzulpenen kalitatea:

Beharren arabera bidaliko ditu Irungo Udalak itzulgaiak, kontratuak irauten duen bitartean. Idatzizko itzulpenetan, dagozkien akademiek ezarritako arauak bete eta jatorrizko testuarekiko fideltasuna gordetzeaz gain, esleipendunak joskera egokia, ulergarritasuna eta testuen erabilgarritasuna ziurtatu behar ditu.

Ahozko itzulpenetan, mezuaren fideltasuna bermatzeaz gainera, edukiaren barne koherentzia, ideien ordena eta hizkuntzaren kalitatea, erregistroak eta sintaxia errespetatuko dira.

Itzulpenetan Irungo Udalak onartutako tokiko toponimia ofiziala erabiliko da. Irungo euskalkia eta Irungo kultur erreferentziak ere ezagutu beharko dira.

Edonola ere esleipendunak lanak burutzerakoan kontratuaren arduradunengandik jasotzen dituen aginduak bete beharko ditu, kontratistarekin egin beharko diren koordinazio bileren kalterik gabe.

Itzulpenak gutxieneko kalitaterik ez badu, enpresari lana zuzendu, aldatu edo berregitea eskatzeko eskubidea du Irungo Udalak, gainkargarik edo bestelako kosturik gabe.

Esleipendunak, kontratua gauzatzen den denboran, udaleko teknikariengandik jasotako arau, jarraibide eta zuzenketak barneratuko dituen estilo-liburua sortu beharko du eta ondoren erabili. Kontratuaren arduradunak edozein unetan estilo-liburu hori eskatu ahal izango dio esleipendunari. Edozein kasutan ere, azken horrek estilo-liburua udalari eman beharko dio kontratua bukatu ondoren.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: 1E5E-XX38-7PLE-EBX6
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Iban Eguzkitza Luna DIRECTOR ÁREA EUSKERA (04/05/2022 15:25 CEST)

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

3.- Idatzizko itzulpena:

Idatzizko itzulpenak udalari bidaliko zaizkio lizitatzaileak jasotako formatu bereko artxiboetan posta elektronikoaren bitartez. Enpresaren bizkar joango da itzulpenak bidaltzearen kostua.

Idatzizko lanak aurkezteko gehienezko epeak ondorengoak izango dira:

- 5 orrialde arte, urgentziarik gabe: 24 ordu
- 10 orrialde arte, urgentziarik gabe: 48 ordu
- 10 orrialde baino gehiago, urgentziarik gabe: 48 ordutako epeari 12 ordu gehiago erantsiko zaizkio 5 orrialdeko multzo bakoitzeko.

- 5 orrialde arte, urgentziazkoak: 6 ordu
- 10 orrialde arte, urgentziazkoak: 12 ordu
- 10 orrialde baino gehiago, urgentziazkoak: 12 ordutako epeari 4 ordu gehiago erantsiko zaizkio 5 orrialdeko multzo bakoitzeko.

Orrialde osoa betetzen ez duten lanak: 2 ordu

Plegu hauen ondorioetarako, orrialdeek 2.000 karaktere izango dituzte.

Enpresa esleipendunak itzulpenak egiteko eta itzulpen-memoria kudeatzeko tresnaren bat erabili beharko du.

Bi fitxategi elektroniko jaso beharko ditu Irungo Udalak lan bakoitzeko:

a) Testu itzulia, udalak bidalitako formatu berean eta diseinuan ere ezaugarri berak dituena. Hala ez bada, jatorrizkotik ahalik eta hurbilen den diseinua izango du itzulpenak.
b) Memoriaz itzultzeko programak sortutako testu segmentatu eta garbitu gabea edo testua itzultzean sorturiko itzulpen memoria, TMX formatuan.

Sei hilabetero, egindako lanei buruzko estatistika-txosten bat bidali beharko dio esleipendunak Irungo Udalari excel-ekin bateragarri den formatuan, honakoak bilduz: itzulpen bakoitzaren identifikazioa, noiz eskatu zen, noiz bukatu eta entregatu zen eta karaktere eta hitz kopuruak.

4.- Aldibereko ahozko itzulpenak (interpretazio lanak):

Enpresak gutxienez bi interprete izendatuko ditu Udalaren esanetara jartzeko eta hirugarren bat, aurrekoen ordezko izateko. Udalaren bilkuretan aurreikusten den denbora kontuan hartuz, interprete batek ala bik egon beharko dute, udalak eskatzen duenaren arabera.

Udalak 40 ordu lehenago jakinaraziko dio enpresari bilkura zein egun, ordu eta tokitan egingo den, urgentziaz deitzen den kasuetan izan ezik, orduan 24 ordu lehenago abisatuko baitzaio.

Interpretazio lanak batez ere udalbatzaren osoko bilkuretan egingo badira ere, udalak beste edozein helburutarako interprete zerbitzua eskatu ahal izango dio kontratistari baldintza ekonomiko beretan.

Interprete lanaren saioaren iraupena, prezio kontuetarako, 2 ordukoa izango da.

5.- Itzultzaile zerbitzua:

Udalak, bere beharren arabera, profesional bat edo gehiagoren zerbitzuak eskatu ahal izango dizkio esleipendunari, adieraziko zaion denbora, toki eta moduan itzulpen lanak egiteko, idatzizkoak zein ahozko aldiberekoak nahiz esanostekoak. Udalak 40 ordu lehenagotik jakinaraziko dio enpresari lan horiek zein egun, ordu eta tokitan behar dituen, urgentziazko kasuetan izan ezik, orduan 24 ordu lehenago abisatuko baitzaio.

6.- Zerbitzua emateko lekua eta disponibilitatea:

Enpresa esleipendunak zerbitzua emateko daukan lekua Irungo udaletxetik ahalik eta gertuen egotea baloratuko da, eta leku hori Irungo Udaletxetik gehienez 30 kilometrora egongo da, zerbitzu presentzialak (interpretazioa, itzultzaile zerbitzua), urgentziaz egin beharreko lanak eta edozein gorabehera edo behar tekniko ahalik eta modu eraginkorrenean kudeatzeko.

Udaleko ohiko lanorduz kanpo zerbitzua ematea eskatzen zaienean ere egoki erantzuteko moduan egon beharko du.